Ikas 23 de abril.qxd 30/04/2004 11:25 Página 2 (1,1)

HEZKUNTZA EGUNEZ EGUN: SEGURTASUNAREN ETA LAN OSASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA



Heldu den apirilaren 28an "Segurtasunaren eta lan osasunaren nazioarteko eguna" ospatuko da. Honen harira, STEE-EILAS sindikatuak irakasle eta ikasleei segurtasunak eta osasunak duen garrantziaz jabetzeko ohar guztirekin IKASBERRIrako espreski moldatutako laugarren emanaldia da honakoa. Izan ere, segurtasuna eta lanean osasuna ziurtatzeko modurik eraginkorrena prebentzioa da eta prebentzioa lanean zein etxean landu beharreko zerbait da.

Lehen sorospenak, edozeini gerta ahal zaio

Lehendabiziko sorospenen unean oinarrizko gauzak ikasiko ditugu gaurkoan. Izan ere, estatistikek erakusten dutenez, larrialdi gehienak eskoletan edota etxean gertatzen diren istripuen ondorio izan ohi dira. Honexegatik, oso garrantzitsua da oinarrizko gauza batzuk jakitea istripu hauei modu egokienean aurre egin ahal izateko.

Informazio gehiago nahi izanez gero, helbide eta telefono honetara jo dezakezue: lagranja@stee-eilas.org 948 270048

PROPOSAMENA IRAKASLEENTZAT



GELAN

A1. Edozeini gerta ahal zaio.

Egunero izaten dugu istripuren baten berri: telebistan, kalean, etxean… Ikasleei ikusi dituzten istripuen inguruan galdetu behar zaie. Hiru zutabe marratuzko ditugu arbelan. Istripu motaren arabera, zutabe batean edota bestean idatziko dugu. Istripu horren aurrean zer egin zen eta zer egin behar zen eztabaidatuko da.

A2. Jolaslekuaren arriskua.

Orri batean jolastokia marraztuko dugu. Jolastoki horretan dauden jarlekuak, zuhaitzak, futbol-ateak, zakarrontziak, eskailerak… marraztuko ditugu. Denbora aurreztu nahi baldin bada, jolastokia jadanik marraztuta dagoen marrazki bat eskura dezakegu eskolaren planoetan. Hurren, ikasle guztiak bikoteka jarriko ditugu. Euren irudikoz jolastokian arriskua dagoen tokiak zehaztu beharko dituzte errotuladore gorri baten laguntzaz. Hau egindakoan, ikusten duten arrisku horren zergatiak jendaurrean azaldu beharko dituzte. Gainera, arriskuren bat duten jolasekin edota jokaerekin zerrenda bat idatziko dute. (Fruita azalak lurrera bota, bulkaka jolastu…) Honen guztiaren inguruan eztabaida zabalduko dugu.

A3. Etxeko arriskuak

Etxeko gela guztiak adina zutabe marraztuko ditugu arbelean ariketa hau gela guztirako eta ozenki egin nahi baldin bada. Bestetik, ikasleak bikoteka multzokatuz egin daitekeen ariketa da. Etxeko gela bakoitzean ikusten dituzten arriskuak zehaztu beharko dituzte. Arrisku hauek inolako istripurik eragin ez dezaten hartu beharreko neurriak azalduko dituzte.

A4. Zergatik….?

Istripuak gertatzen diren arrazoiak eta zergatiak irakatsi nahi ditugu gaurkoan. Honexegatik, istripu bat eta honen zergatia azaltzen duten fitxak egingo ditugu orrialde bakarrean. Gero, orrialde bi pusketan zatitu daiteke. Fitxa guztiak nahastutakoan, istripu bat eta bere zergatia josten ahaleginduko gara.

A5. Erreanimazioa

Soinketa klasea erreanimazio ariketa egiteko baliatuko dugu. Horrela, zaintiratu bat irudikatuko dugu eta honen aurrean nola jokatu behar den ikasiko dugu. Berdin eginen dugu bestelako istripu batzurekin: konortea galdu, eskumuturra apurtu… Beti ere, ikasleen mailaren arabera.

IKASLEEN FITXA

ISTRIPUEI AURRE EGITEKO MODURIK EGOKIENA PREBENTZIOA DA

Istripu bat gertatzen denean ahalik eta lasaienen egotea komenigarria da, ohiuak edota zalapartak alde batera utziz, eta hurrengo argibideak jarratu behar dira:

Babestu. Edozer gauza egin baino lehen, istripua jazo duen pertsonarengan erreparatu behar da oraindik ere kalteturik jarraitu baitezake. Salbu dagoela ziurtatzen dugunean, pertsona heldu bati deitu behar diogu. Gero, ahalik eta laisterrenen 112 telefonora deitu behar da.

Laguntza eman. Gaixorik dagoen pertsona lasaitu behar da eta behin eta berriz esan behar zaio eskatu den laguntza berehala iritsiko del.a. Istripua oso larria baldin bada eta 112 telefonora deitzeko aukerarik izan ez baldin baduzu, hauek kontutan hartzeko hizpideak dituzu:



Biktima ez da mugitu behar, hezurraren bat hautsita izan dezakeelako.

Sudurra eta ahoa garbirik dituela ziurtatu behar dugu, bertatik arnas egin ahal izateko.

Biktima jantziren batekin babestea komenigarria da eta sorospen zerbitzuak etorri bitartean ez zaio edatekorik edota jatekorik eman behar.

ODOLJARIOAK:

Odola ateratzen den zuloan zapi garbi batez estali. Zapi hau hamar minutuz mantenu daiteke. Denbora hau pasatakoan eta odoljarioak bere horretan irauten baldin badu, beste zapi garbi batekin jarraituko dugu.



Gainera, zauria dagoen zulo horrek bihotzaren maila baino altuagoa egon behar du. Sorospen zerbitzuak etorri bitartean odoljarioa gelditzen ez bada eta zauriak larria badirudi, besoaren edota hankaren muturrean tornikete bat egitea komenigarria da. Torniketea egin den unea buruan hartuko dugu.

ZAURI ARINAK (EZ DAGO BIZI ARRISKURIK):

Eskuak garbitu.

Zauria urarekin eta xaboiarekin garbitu.

Zauria ur oxigenatuarekin blai utzi eta gazarekin lehortu, sekula ez kotoiarekin. Iodoa bezalako antiseptikoa erabili, sekula ez alkohola. Zauri horretan zikinkeririk edota antzeko zerbaitek iraunen balu, sendagileak garbitu beharko luke. Zauria zikintzeko arriskua baldin bada, zauria gaza eta esparatrapuarekin babestu behar da.



Zauria sakona baldin bada eta tetanos-kontrako txertoaren programa jarraitu ez bada, bakuna hau jarri beharko da.

ZAURI LARRIAK (SOROSPEN ZERBITZUAK ETORRI BITARTEAN):

Odoljarioa geldintzen ahaleginduko gara. Honetarako, gaza heze batekin zauria estali eta hesgailu baten laguntzaz zauria babestu behar da.

UBELDURAK ETA ZAINTIRATUAK:

Min hartu duen pertsona ahalik eta erosoenen jarri behar dugu. Zaintiratu egin zaion gorputz atala bihoartzaren maila baino altuago jarri behar dugu. Zapi batek edota bestelako ehun batek babesten duen izotza jarri ahal zaio zaintiratu zaion tarte horretan. Gehienez, 20 minutuz.

ERREDURA LARRIAK:

Gorputza sutan baldin badago, burusiren edota jantziren bat gainera bota. Sua oxigenorik gabe geldituko da eta itzaliko da. Behin sua itzali denean, urarekin garbituko dugu bertatik jantzi aztarnak kentzeko.

ERREDURA TXIKIAK:

Erre zaigun gorputz atala ur txorrota baten azpian mantenu. Erreduraren ondorioz sortu diren babak ez leheru. Antiseptikoren bat jarri. Zaurira itsasten ez diren gaza batekin erredura babestu. Izan ere, erredurak oso erraz gaizkoatzen dira.

ELEKTROKUTATZEA:

Elektrokutatze bat gertatzen denean, argi indarra antzutu behar da edota egurrezko makil baten laguntzarekin pertsona hori argi indarretik bereiztuko dugu. Ezin dugu zuzenean ukitu gure gorputzera hedatuko baita elektrizitatea.